

# 2020/2021 IKASTURTE HASIERA SEGURU, ADOSTU ETA KALITATEZKO BATERAKO PLAN OROKORRAK JARRAITU BEHARREKO ILDOAK

## Sindikatuon proposamena EAEko hezkuntza sailari

### Sarrera

Hezkuntza Sailak 2019/2020 ikasturte amaierari begira gauzatu dituen planteamendu eta erabakiak, bizi dugun pandemia larriak eskatzen dituen osasuna bermatzeko irizpideak lehenetsi barik, irizpide pedagogikoak baztertuz eta beharrezko adostasunik gabe gauzatu ditu sindikatuon ustez;

Erabaki hauek inprobisatuak, prezipitatuak eta aldakorak izan dira eta izaten jarraitzen dute. Gainera, langileon ordezkariokin **partekatu, negoziatu zein adostu gabekoak izaten ari dira**. Hau da, ikasturte amaierara- zein hurrengo ikasturte hasierara- begira, hartu beharreko osasun- neurriak zein akademikoak nagusiki aurrera eraman behar dituzten pertsonen ahotsa entzun gabe.

Aldebakarreko erabaki hauen artean azkena, pasa den aste amaieran jakin duguna, 0-3 adintarteko hezkuntza presentziala ekainaren 8tik aurrera martxan jartzea baimendu duela azkenik Jaurlaritzak, alegia.

Sindikatuon ustez onartezina eta ulergaitza litzateke aldebakarreko erabaki eta planteamenduen egoera hau mantentzea eta errepikatzea. Bereziki larria izango litzateke gainera, pandemia egoerak agerian utzi dituen gure hezkuntza sistemak arrastatzen dituen behar estrukturalak aintzat hartu gabe, zein osasun krisiak orohar eta konfinamendu egoerak bereziki, sortu dituen hezkuntza behar gehigarriak, ikasleen arteko arrakala handitzeak, errefortzu beharrak, eta egoera bereziak kontuan izan gabeko ikasturte hasiera bat planteatzea.

Are larriagoa, udazkenean etor daitezkeen pandemiaren suspertze baten aurrean pandemiaren lehenengo fase honetatik ondoriorik atera ez bagenu bezala aritzea edota ondorio horien baitako plangintzak eta aurreikuspenak aurrez ez lantzea eta prestatzea.

Horrela, datorren ikasturtera begira aurreikusi daitezkeen eszenatoki desberdinen aurrean ezinbestekoa deritzogu Hezkuntza Sailak gure hezkuntza sistema osorako plangintza eta irizpide orokor batzuk landuta eta aurreikusita izatea. Funtzeskoa bestalde, langileon ordezkariokin partekatu, negoziatu eta adostutako plangintza eta irizpideak izatea.

## **Datorren ikasturtera begirako plangintza orokorrak jarraitu beharreko ildoak**

### **Aurretiazkoak**

- Ondoren azaltzen dugun bezala, bizi dugun osasun krisi honen eraginez, 2020/2021 ikasturtea ez ohiko ikasturte bat izango da, eta ezin zaio ohiko ikasturte baten trataera eman. Hau arduragabekeria litzateke.
- 2020/2021 ikasturtera begira, pandemiaren eboluzioa zein izan daitekeen ziurtasunez jakitea posible ez bada ere, eman daitezkeen eszenatoki desberdinak aurreikusitu daitezke. Beraz, onartezina izango litzateke eman daitezkeen eszenatoki desberdinen bakoitzarekiko, hezkuntza sistema osorako plangintza eta irizpide orokorrik ez lantzea Hezkuntza sailak, zein neurri eta baliabideak ez aurreikustea.
- Osasun erakundeek ematen diguten informazioaren arabera gainera, oso posiblea da udazkenean birusaren suspertze bat ematea. Jada bizi izan dugun pandemia egoeratik irakasgaiak atera eta prestatuta egon behar gara horrelako eszenatoki baterako.
- Pandemiaren eboluzioa izango dena izanda ere, 2019/2020 ikasturtean bizi izan dugun konfinamendu egoerak, datorren ikasturtea antolatu eta planifikatzerako orduan kontuan hartu behar diren hezkuntza beharrak sortu eta areagotu ditu, aurrez ere gure hezkuntza sistemak urte luzeetan bizitako murrizketa eta inbertsio falta nabariaren ondorioz arrastatzen dituen gabeziak agerian uztearekin batera.
- Aurrekoari lotuta, ikastetxez ikastetxe identifikatu behar dira behar horiek. Horretarako ezinbestekoa da Hezkuntza Sailaren ardurapean dauden sare guztietan, ikasleek izan duten ikaskuntza-irakaskuntza prozesuak izan duen etenaldiaren diagnostiko erreal eta zehatza egitea. Egoera honi erantzuteko beharrezkoak diren baliabide personal, formatibo, antolakuntzazkoak zein materialak diseinatze aldera.

### **2020/2021 ikasturterako Plangintza orokorrak jarraitu beharreko ildoak**

Aurrez aipatutakoak kontuan izanda, dokumentu hau sinatzen dugun sindikatuok 2020/2021 ikasturte hasierara begirako plangintza orokorrak jarraitu beharreko ildoak zeintzu beharko luketen izan helarazi nahi diogu Hezkuntza Sailari:

- 2020/2021 ikasturte hasierara begira, ohiko ikasturte bat izango deneko ideia alboratu eta eman daitezkeen eszenatoki errealista desberdinen argazki bat gauzatu;
- Eszenatoki desberdin bakoitzaren aurrean, osasuna bermatzeko hartu beharreko segurtasun neurriak protokolo orokor batean jaso. Segurtasun neurri hauek kontingentzi planak egiteko ezinbestekoak izango dira eta prebentzio zerbitzuekin koordinatuak izan behar dira.
- Eszenatoki desberdin bakoitzaren aurrean, ikasleen aniztasuna oinarri hartuta, behar berezi, emozional, pedagogiko, akademiko, garraio, zerbitzu eta jangeletakoak nola

garatuko diren planifikatu, ikasleen arteko behar eta egoera sozioekonomiko desberdinak kontuan hartuz.

- Eszenatoki desberdin bakoitzean hartu beharreko segurtasun neurriak arautu eta dagokion kasuetan hauek ahalbideratzeko, eta ikasleen behar pedagogiko zein akademikoak bermatzeko, beharrezko baliabideak, antolakuntza neurriak, plantila gehikuntzak, ratio murrizketak, baliabide formatiboak zein beste inbertsio aurreikuspenak gauzatu eta langileen ordezkariekin negoziatu.

- Eszenatoki desberdin bakoitzaren aurrean, EAEko Hezkuntza sistema osorako eta ikastetxe guztietarako gutxieneko irizpide amankomunak ezartzea, horrela ikastetxe desberdinetako ikasleen arteko desberdintasun zein arrakalak sortzea edo areagotzea ekiditeko.

- Eszenatoki desberdin bakoitzaren aurrean, ikastetxe bakoitzeko zuzendaritza taldeekin, zein langileen kolektibo guztiekin eman beharreko pausoak, abian jarri beharreko segurtasun neurriak, ikasleen behar pedagogiko eta akademikoak asetzeko neurriak, zein ikastetxean abian jarri beharreko gainerako plangintzak aurrez partekatu eta lantzea.

## Eskaera

Aurrez aipatutako guztia kontuan izanik, idatzi hau sinatzen dugun sindikatuok Hezkuntza Sailari eskatzen diogu sindikatuokin dokumentu honetan jasotako ildoak jarraituz 2020/2021 ikasturtera begirako plangintza orokorra partekatu, negoziatu eta adosteko prozedurari ekitea;

Aldi berean, egoera hau gure hezkuntza sistema indartzeko eta baliabidez hornitzeko aukera gisa probestu dezala eskatzen diogu Hezkuntza Sailari. Pandemia honek agerian uzti du zenbat eta baliabide eta inbertsio gehiago bideratu bai zerbitzu publikoetara orohar, eta hezkuntzara bereziki, antzeko krisi egoera bati erantzuteko askoz baldintza hobegotan egongo garela gizarte moduan;

Euskal Herrian 2020ko Ekainak 10ean.



# LÍNEAS A SEGUIR PARA UN PLAN GENERAL CONSENSUADO PARA UN INICIO DE CURSO 2020-2021 SEGURO Y DE CALIDAD.

## **Propuesta de todos los sindicatos del ámbito educativo al Departamento de Educación de la CAV**

### **Introducción**

Los planteamientos y decisiones que el Departamento de Educación ha llevado a cabo de cara al final del curso 2019/2020, sin priorizar los criterios de garantía de salud que requiere la grave pandemia que vivimos, los ha llevado a cabo rechazando criterios pedagógicos y sin el consenso necesario de todos los agentes educativos y sociales.

Estas decisiones han sido y siguen siendo improvisadas, precipitadas y variables. Además, todas las decisiones no están siendo ni compartidas, ni consensuadas, ni mucho menos negociadas, con las personas trabajadoras ni sus representantes; es decir, sin escuchar la voz de las personas que principalmente deben llevar a cabo las medidas sanitarias y académicas a adoptar en este fin de curso y en el inicio del próximo.

La última de estas decisiones unilaterales ha sido que el Gobierno, finalmente, ha autorizado, a finales de la semana pasada, la puesta en marcha de la educación presencial de 0-3 años a partir del 8 de junio.

Los sindicatos consideramos inaceptable e incomprensible que el departamento mantenga esta política de decisiones y planteamientos unilaterales. Consideramos, además, especialmente grave, plantear un inicio de curso sin tener en cuenta las necesidades estructurales de nuestro sistema educativo que han sido puestas de manifiesto por la pandemia, el confinamiento y la crisis sanitaria en general, como pueden ser: las necesidades educativas adicionales generadas, el aumento de la brecha entre el alumnado, las necesidades de refuerzo y otras situaciones especiales. Y consideramos mucho más grave aún que el departamento, con la posibilidad cierta de una segunda oleada de la enfermedad en otoño, actúe como si no fuera necesario sacar conclusiones de esta crisis sanitaria, pensando en un inicio de curso normal y corriente.

Los sindicatos, ante los diferentes escenarios que, ciertamente, se pueden prever de cara al próximo curso, consideramos imprescindible que el Departamento de Educación tenga elaborada y prevista una planificación y unos criterios generales para todo nuestro sistema educativo y que sea elaborada con unos criterios compartidos, negociados y consensuados con las personas trabajadoras y sus representantes.

## **Directrices propuestas por los sindicatos para la planificación general del próximo curso**

### **Previas**

Tal y como se expone a continuación, la crisis sanitaria que atravesamos hará que el curso 2020/2021 no sea un curso ordinario y por tanto que no se le puede dar el tratamiento de un curso ordinario. Esto sería una irresponsabilidad.

Según la información que nos facilitan las instituciones sanitarias, es muy posible que en otoño se produzca una recuperación del virus, y aunque no es posible conocer con certeza cuál puede ser la evolución de la pandemia, sí se pueden prever varios escenarios diferentes que podrían presentarse, por lo que sería inadmisibile que el Departamento de Educación no elaborara una planificación general para todo el sistema educativo, con medidas, recursos disponibles y criterios diferenciados para cada uno de ellos.

La situación de confinamiento que hemos vivido en el curso 2019/2020 ha puesto de manifiesto las carencias que nuestro sistema educativo viene arrastrando como consecuencia de la evidente falta de inversión y de recortes vividos durante largos años, clarificando así cuales son las necesidades educativas a tener en cuenta a la hora de organizar y planificar el próximo curso.

Por todo ello es imprescindible realizar un diagnóstico real y preciso de la interrupción que el confinamiento ha supuesto al proceso de enseñanza-aprendizaje del alumnado en todas las redes bajo la responsabilidad del Departamento de Educación, siendo muy conveniente que las nuevas necesidades sean identificadas centro por centro, previendo y diseñando los recursos formativos, organizativos, materiales y de necesidades de personal para que puedan dar respuesta a los diferentes escenarios que podamos prever.

### **Plan General para el curso 2020/2021**

Teniendo en cuenta lo anteriormente señalado, los sindicatos firmantes de este documento queremos trasladar al Departamento de Educación cuáles deberían ser las líneas a seguir en la planificación general para el inicio del curso 2020/2021:

El próximo NO será un curso ordinario, por tanto ha de realizarse una fotografía de los diferentes escenarios posibles que se pueden darse. Solicitamos la elaboración de un **PROTOCOLO GENERAL** que recoja las medidas de seguridad a adoptar para garantizar la salud ante los diferentes escenarios. Estas medidas de seguridad serán imprescindibles para la elaboración de planes de contingencia y deberán ser coordinadas con los servicios de prevención.

Deberá planificar el desarrollo de las necesidades especiales, emocionales, pedagógicas, académicas, de transporte, de servicios y comedor ante cada uno de los diferentes escenarios, teniendo en cuenta la diversidad del alumnado y también teniendo en cuenta las necesidades y situaciones socioeconómicas diversas de mismo.

Deberá regular las medidas de seguridad a adoptar en cada uno de los diferentes escenarios para posibilitarlas en los casos oportunos y garantizar las necesidades pedagógicas y académicas del alumnado, establecer los recursos necesarios, las medidas organizativas, los incrementos de plantilla, las reducciones de ratios, los recursos formativos u otras previsiones de inversión y deberá negociarlas con las personas trabajadoras y sus representantes.

Deberá establecer criterios mínimos comunes para el conjunto del sistema educativo vasco y para todos los centros, también teniendo en cuenta cada uno de los diferentes escenarios, de manera que se eviten desigualdades y brechas entre el alumnado.

Y deberá permitir que los pasos a dar ante cada escenario sean trabajados y consensuados, tanto con los equipos directivos de cada centro, como con todos los colectivos de personal y sus representantes.

Teniendo en cuenta todo lo anteriormente señalado, los sindicatos firmantes del presente escrito instamos al Departamento de Educación a iniciar el procedimiento para compartir, negociar y acordar con nosotros la planificación general para el curso 2020/2021, siguiendo las directrices recogidas en el presente documento. Al mismo tiempo, solicitamos al Departamento de Educación que aproveche esta situación como una oportunidad para fortalecer nuestro sistema educativo y dotarlo de los recursos que necesita y merece.

Esta pandemia ha dejado claro que, cuanto más se invierta y más recursos destinemos a los servicios públicos en general y a la educación en particular, mejor preparados estaremos, como sociedad, para responder ante una situación de crisis similar.

En Euskal Herria el 10 de Junio de 2020.

